

‘1.200 kilometro’
dokumentala
estreinatuko
dute ostiralean ▶ 5



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Igandea ▶ 2006-09-17 ▶ IV. urtea ▶ 965. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

EHNA eskuan itzuli dira Josetxo Otegi eta Joakin Arregi iheslariak etxera

ZIZURKIL ▶ Herenegun egindako euskal naziotasuna
aldarrikatzeko jaialdian agertu ziren jendaurrean ▶ 6



Josetxo Otegi eta Joakin Arregi, ezkerrean, Zizurkilen eskaini zioten ongietorriko une batean. MADDI SOROA

TOLOSALDEA ▶

Eskualdeko sei ordezkari Mexikon, Munduko Pilota Txapelketan

Lopetegik, Vinuesak, Mintegik, Mendizabalek, Odriozolak
eta Urkizuk hartuko dute parte, hilaren 22an hasita ▶ 4

AINHOA ARTETA ▶ SOPRANOA

«Etxean abestean poza sentitzen dut»

‘Tolosa Kantuan’ kontzertuan hartu du parte tolosarrak ▶ 3



JAIONE ASTIBIA

Euriak bustita, baina giro onak hutsik egin gabe

TOLOSA ▶ Urteurreneko ekitaldien baitan,
Euskal Herriko Graffiti Lehiaketako finala,
Oskorri eta Kepa Junkera, besteak beste ▶ 7



UZTURRETIK ▶ XABIER TELLERIA

Aita Santuaren arrazoia



Hautsak harrotu ditu Aita Santuak Alemaniara egindako bidaian esandakoak, Darwinen eboluzioaren teoriak duen arrazoi faltaz. Irrazionala omen. Batzuen batzuk Benedikto-ren defentsan atera dira plazara, esandakoaren sakontasuna argudiatzeko

bere jakinduria aitortuz; beste batzuk, esaldia testuingurutik atera izana egotzi diete berriemaileei.

Akaso, filosofiaren talaiatik egin ditu adierazpenok. Ez diot nik jakinduriarik ukatuko Aita Santuari. Litekeena da guk oker interpretatu izana haren hitzak. Baina artalde bide zuzenetik eramateko ardura bere egina duen artzainak, eta jakintsua izanik, jakin beharko luke bere hitzak interpretaziorako aukerarik eman gabe klaru adierazten; bestela berekin du arriskua: bere artaldekotzat

nahi gaituen, baina otzandu gabeko gehienok, kaskagorrenak garenok, erakusten digun bidea ez ikustea eta juxtu kontrakotik joaten tematzea.

Aita Santuak eboluzioaren teoriari ikusten dio arrazoi falta; nik aldiz, teoriarako gaitasun aparta eta eboluziorako erabat eskasa sumatzen diot bere figurari eta gidatzen duen elizari. Garaietara egokitze erreflexu falta izugarria, gaizki eta oso berandu ailegatzearen sentsazioa; traktoreen garaian, kirrinkarran, ardatza ondo olioztatu gabeko

gurdiaren ibilera tristea. Munduaren sorrera eta bilakaera egokien irizten duen moduan ulertzeko eskubiderik ez diot nik inori ukatuko. Era logiko-zientifikoa goan batzuk (big-bang hura, eboluzioa eta abar); poetiko-literarioagoan beste batzuk (paradisua, Adanen saiheh-hezurrez sortutako Eba...) Hori bai: arrazoi heldu behar badiegu, nik argi daukat zein aldetara makurtzen den gehiago arrazoiaren pisua eta zeinetara, berriz, intentsu lurrinen edo trikorniopeko sukarraldien eldarnioa.

ASTEKO IRUDIA ▶



MADDI SOROA



750 urte bete ditu Tolosak, hiribildu izendatu zutenetik

Iñigo Terradillos ▶ Asteazkenean bete zituen Tolosak 750 urte hiribildu izendatu zutenetik, eta urteurrena behar bezala ospatzeko, egitarau zabala antolatu zuten. Ekitaldi nagusia —argazkian— estreinatu berri den Leidor aretoan egin zuten, eta bertan urteurrenako oroigarria eman zien Jokin Bildarratz Tolosako alkateak Juan Jose Ibarretxe Euskal Autonomia Erkidegoko Lehendakariari, Joxe Juan Gonzalez de Txaba-

rri Gipuzkoako Ahaldu Nagusiari eta Leire Erefño Gipuzkoako Batzar Orokorretako lehendakariari. Ekitaldiaren ostean, eguneko beste hitzordu garrantzitsua Zerkau-siaren inaugurazioa izan zen. Agintariak eta herritarrak bertan zirela, lunch-az gozatzeko aukera izan zuten Zerkausi berria goitik behera nola geratu den ikusteaz bate-ra. Urteurrenako egitarauak jarraipena izango du hainbat ekitaldirekin.

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da 4 orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. Interesatuak deitu 635 74 52 91 telefono zenbakira.

Zaintzailea. Pertsona euskalduna behar da bi haur zaintzeko. 17:00etatik 18:00etara, astelehenetik ostegunera.

Deitu, gaez, 943 67 27 96 zenbakira.

SALGAI

Egurra. Tximenetako zatituta dagoen pago enbor lehorra salgai. Interesatuak deitu 646 53 71 15 telefono zenbakira.

Autoa. Ford Fiesta Ghia 1.4 TDCI. 70 zaldi (2002). 615 76 05 82.

Argazki kamera. Nikon D50 reflex digitala, 18-50 eta 50-200 objektiboak, gb leko txartela eta poltsarekin. Egoera onean. Deitu 600 02 60 85 telefono zenbakira.

Autoa. Salgai Mercedes Vitoa, 110D. Mistoa, 1997 urtekoa. Interesatuak deitu 646 13 05 47 telefono zenbakira.

iragarki laburrak ▶

LAN HEZKUNTZA

Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira: Eusko Jaurlaritzan, Udaletxeetan eta Erakunde Publikoetan. 943 31 37 82.

Harreragileak-Administrari laguntzaileak. behar dira Erakunde Publikoetan. 943 31 37 82.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Hau da iritzia eman dezazun proposatzen dizugun gaia: «Zergatik ematen da bullying-a? Ikasle batzuk tratatu txarrak eta irainak jasotzen dituzte. Gure gurasoek jasaten zutenean bezalako erasoak dira? Irtenbiderik ba al du?»

AINHOA ARTETA ▶ SOPRANOA

«Etxean abestean poz handia eta goxotasuna sentitzen dut»

Esti Ezeiza ▶ Ainhoa Arteta (1964, Tolosa) soprano ezagunak parte hartu zuen atzo gauean, *Tolosa Kantuan* izeneko emanaldian. Hala, kontzertua baino lehenago hitz egin zuen TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK, berarekin.

Prentsaurrekoan zenioen bezala, abesbatzako neskekin hasi zinen. Eta orain, zer sentitzen duzu berriro beraiekin abestean?

Ia urtero, eta ahal dudan guztietan errepikatzen saiatzen naizen esperientzia da. Izan ere, ahal dudan guztietan, eta gabonetan beraiekin abestera ateratzen naiz. Eta oso oroitzapen onak ditut, beraiekin hasi bainintzen, Aitaren abesbatzarekin, kantatzen. Nolabait, nire txikitako lagunak ziren. Bestalde, itzultzen naizenean gogotsu abesten ikusten ditut, eta horrek ilusioa egiten dit. Gainera, betidatik abestu izan ditugun kantuak gogoratzen ditugu, eta azkenean hori da garrantzitsuena, beraiekin pixka bat egotea.

Asko aldatu al da urte haue-tan Eresoinka abesbatza?

Bai. Hasteko, denak, zaharrago gaude. Baina, funtsean, denak berdina izaten jarraitzen dugu, eta hori da politena. Bizitzak eman dizkigun gorabeherekin, baina, beti abesteko eta abesten jarraitzeko ilusioarekin.

Ilusioa egin al dizu, horrelako egun handi baterako abesteko deitu izanak?

Askotan aritu izan naiz elkarlanean beraiekin, eta badakite, ahal izanez gero etorriko naizela. Bestalde, alkatea ere kontaktuan jarri zen nirekin eta Tolosako Orfeoia bitartez proposamena egitera etorri zitzaizkidan. Gainera, Tolosan badakite, orokorrean, nirekin konta dezaketela, ahal izanez gero. Eta are gehiago 750. urteurrenaren ospakizunetan. Zailantzan zegoena zen, ea zer kolaborazio mota egingo nuen.

Azkenik, zuk, 750.eko ereserkia eta Tolosa maitea abestuko dituzu...

Bai, eta baita *Haurtxo polita* ere. Hasiera batean, nik, kontzertu bat abesteko ideiaz ere hitz egin zen. Baina gauzak asko zailtzen ziren ekonomia kontuengatik-eta. Kontzertu liriko bat aplikatzea oso zaila baita. Oso zaila zen, baita ere, herriarentzako den kontzertu baten testuinguruan, horrelako ekitaldi bat sartzea. Eta azkenean, elkarlan bat izan be-



E. EZEIZA

HIMNOA

«Zortziko zoragarria da, eta letra ere oso ona du, herriko gauzetaz hitz egiten du. Jendeari asko gustatuko zaio»

har zuela erabaki genuen. Niri ere zuzenagoa iruditu zitzaidan, lehen ere abesbatzarekin egin izan dudana bezala, bakar-kako kolaborazio bat egitea.

Beraz, gustora erabakiarekin?

Bai, oso gustora. Larunbatekoan (atzokoan) balio duena zera da, une polita eta hunkigarria izango dela.

Zer sentitzen da etxean abestean?

Oso gustora sentitzen naiz. Gainera, horrelako kontzertuak ongi pasatzeko dira, bereziak. Eta hori nahi dut, une on bat igarotzeko gogoia daukat. Eta etxean abestea, etxean jatea bezala da. Poza eta goxotasuna sentitzen da; hori da hitza, goxotasuna.

Himnoari dagokionez, zer deritzozu? Gustatu al zaizu?

Zoragarria da, Kike Ugartek konposatu du, eta hau, ia nire ahaidea da. Asko maite dudana miresten dudana pertsona da. Musikari handia, nahiz eta hemen gehiegi ez ezagutu. Luxu bat da Tolosan horrelako

TOLOSA

«Ederra ikusten dut Tolosa, nostalgiarekin; baina, nik hiriarren alde politena bakarrik ikusten dut»

konposatzaile bat izatea eta berak egin izana himnoa. Ereserkia oso polita da, zortziko zoragarria, eta letra ere oso ona da; herriaren inguruan hitz egiten du, eta nik uste dut jendeari asko gustatuko zaiola.

Karlos Linazasorori bezala, zuri ere arraroa egin al zaizu, Tolosarentzat himno bat sortzeko ideiak?

Bai, harroputz samarrak gara horretan, ia ia bilbotarrak bezala. Tolosari beti geratu zaio hiriburutartasun zentzu hori. Garai batean, Gipuzkoako hiriburu izateak, oraindik ere eragina du. Nahiz eta ofizialki hiriburu ez izan, nik uste, hala sentitzen dela. Gipuzkoa osokoa ez bada ere, bai, eskualdekoa eta barnealdekoa, eta harrotasun handiarekin darama.

Nahiz eta tolosarra izan, urte asko daramatzazu kanpoan bizitzen. Nola ikusten duzu hiria?

Ederra ikusten dut, nostalgiarekin, baina nik herriaren alde-rik politena ikusten dut. Hala ere, badakit, hiri guztiak beza-

la, bere gauza onak eta txarrak izango dituela. Baina, bertan denbora gutxi egoten naizenez, hiriko gauza politenak bakarrik ikusten ditut.

Kanpoan zaudenean, zer da gehien faltan botatzen duzuna?

Egia esan ez naiz nostalgian bizi den pertsona. Bizitza, eta bizitzea asko gustatzen zait. Inguratzen nautenekin, egunean egunekoa bizitzea gogoko dut. Joaten naizen tokietan, bertakoekin erlazionatzen saiatzen naiz, kultura ezberdinak ezagutuz. Herriaz eta familiatzatzen dudanean, ez dut modu triste eta malenkoniatsu batean egiten. Alderantziz, izan dudana zortiaz ohartzen naiz, eta zenbat gauza polit bizitzeko aukera izan dudana.

Hona etortzean, zer da normalean egiten duzuna?

Familia bisitatu, babarrunak eta txuleta eder bat jan... Oso hemengoak diren gauza horiek egiten ditut. Lehen, txikitari egunerokoak eta ohikoak ziren gauza horiek egiteak, nolabait, oreka aurkitzen laguntzen didate.

Zein proiektu dituzu orain, esku artean?

Kontzertu honen ondoren hiru errezitaldi ditut. Eta gero, Europan zeharreko errezitaldien bira batean hasiko gara, Viena (Austria) abiatuz. Honek urriaren amaierara arte iraungo du.

Eta, gabon hauetan entzun ahal izango al zaitugu Tolosan?

Gabonak, etxean igarotzen ez ditudan lehenengoetakoak izango dira. Eta asko kostatu zait erabakitzea, kontratua ez zitzaidan gustatzen, gabonak etxean igaro nahi izaten baititut. Baina, aspalditik eskaintzen zidaten kontratua zen, eta azkenean, oraingoan, onartu egin beharra izan dut. Beraz, hurrengoetan beharko du.

ESANA ▶

ENRIKE UGARTE
ORKESTRA ZUZENDARIA

«Ohere bat da niretzat himnoa konposatu izana, eta aldi berean, ardura handia ere bai»

«Tolosako eta Euskal Herriko musika tradizioetan oinarritu naiz zortziko hau konposatzeko»

«Duela urte eta erdi inguru proposatu zidaten Orfeoia eta Fundazioak ereserkia konposatzeko»

DATUA ▶

391

1615. Duela 391 urte, Felipe II.a erregea eta bere alaba, Ana Austriakoa, Frantziako erregina, etorri ziren. Herri izaera lortu zuten Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Altzo, Amasa, Amezketeta, Andoain, Anoeta, Balarriain, Berastegi, Zizurkil, Elduain, Ikaztegieta eta Orendaingo lurraldeek.

HITZA banatzeko jendea behar da Tolosaldean
Tolosa, Ibarra, Villabona, Irura, Anoeta, Zizurkil eta Leizarako.

LEHEN BAIT LEHEN

LAN-BALDINTZAK :

- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 09:00etatik 13:00etara.
- Astean sei egun. Asteartetik igandera.

Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara
943 30 35 33

► PILOTA

Hilaren 22an hasiko da Munduko Pilota Txapelketa; aurten Mexikon jokatu da eta eskualdeko sei lagun izango dira bertan. Bihar abiatuko dira Mexikora eta lau egunetan zehar egoerara moldatzen ibili ostean, hilaren 22an ekingo diote astebete iraungo duen txapelketari. **Nerea Lizartza**

JOXI LOPETEGI ETA DAVID VINUESA ► XARE JOKALARIAK

«Gutxienez eta gehienez zilarra lortzeko asmoz goaz»

Iparraldekoiei gainditzea «oso zaila» izango dela azaldu dute

Joxi Lopetegi eta David Minuesa irurarrak dira. Txikitatik dabilta pilotan jokatzeko, zehazki xarean. Lehen aldiz jokatu dute elkarrekin pilota txapelketa bat, aukeraketa egin ostean horrela suertatu delako. Izan ere, orain arte bakoitza bere aldetik ibili izan da.

Munduko Txapelketa Absolutura —22 urtetatik gorakoentzat— lehen aldiz joango da David Minuesa; Lopetegik, ostera, laugarren aldiz izango du. «Entrenamenduak nahiko gogorak izaten dira, astean hiru egunetan izan arren Iruñearaino joan behar izaten baitugu. Gainera guztia lanarekin uztartu behar dugu» azaldu dute.

Joxi Lopetegik, beste hainbat sariren artean bi Munduko Txapelketa irabaziak ditu jada;



Joxi Lopetegi eta David Minuesa. **NEREA LIZARTZA**

hala ere, aurten ez dute irabazteko esperantza handiegirik: «Gutxienez eta gehienez zilarra lortzeko asmoa daukagu. Iparraldekoak gu baino hobekiak dira, eta ezin izango diegu

haiei irabazi; dena den, finala jokatzeko espero dugu». Sei nazio ariko dira xarean elkarren aurka: Frantzia, Argentina, Kuba, Txile, Mexiko eta Espainia. ◀

ASIER MINTEGI ► ESKUZ BINAKAKO PELOTARIA

«Lehen aldiz joango naiz Txapelketara»

«Ilusioz» dago Munduko Txapelketarako

26 urteko lizartzar hau zazpi urte inguru zituela hasi zen eskupilotan jokatzeko. Halere, urte batzuren buruan Lizartzan bere adinekoentzat eskolarik ematen ez zutenek, Amezketara joan behar izaten zuten entrenatzera; oraindik ere hara joaten da. Hamar urte zituela hasi zen txapelketetan parte hartzen; 1992an lortu zuen bere lehen txapela. Edonola ere, lehen txapel horren ondoren beste hainbat etorri ziren. Oraingoa, halere, erronka berria du, lehen aldiz joango baita Munduko Txapelketara.

«Ez nuen espero, beraz, ilusio handia egin zidan Munduko Txapelketara joateko hautatua izan nintzela esan zidatenean», azaldu du Mintegik. Oraindik ez daki zein izango den zehazki



HITZA

bere bikotea, baina badu zantzurik. Txapelketa nola ikusten duen galdetutakoan «faboritoen artean gaudela dioten arren, Frantziak eta Mexikok maila handia dute, beraz, kontuz ibili behar dugu» esan du Lizartzarrek. ◀

MAIDER MENDIZABAL ETA ITXASO URKIZU ► TRINKETE JOKALARIAK

«Ondo jokatzuz gero, kostata baina irabaziko genuke»

Trinkete jokalaria pilotako «umezurtzak» direla diote

Maidar Mendizabal anoetarra eta Itxaso Urkizu berastegierra lehen aldiz aurkeztuko dira elkarrekin mundu mailako txapelketa batera. 22 urtez azpikoen bi Munduko Txapelketetan izan da Itxaso Urkizu, behin lehen postua lortu zuen eta hurrengoan, ostera, bigarren. Aurten, halere, lehen aldiz jokatu du Munduko Txapelketa Absolutua —22 urtetatik gorakoentzat—.

Mendizabalek hogeitau urte inguru daramatza pilotan jokatzeko, 7 urte ingururekin hasi baitzen. Itxaso Urkizuk gutxiago daramatza, izan ere, duela bost urte hasi zela dio. Euren modalitatean, trinketean, haiekin herrialdeetako bikoteen aurka jokatu beharko dituzte partiduak. «Gure inguruan oso trinkete gutxi daude; beraz, en-



Maidar Mendizabal eta Itxaso Urkizu. **NEREA LIZARTZA**

entrenamenduetarako arazoak izaten ditugu. Trinketean jokatzeko dugu, nolabait esateko, pilotako umezurtzak gara», adierazi dute pilotariek.

Berez Irurako trinketean egiten dituzte entrenamenduak

baina orain Munduko Txapelketa dela eta, Iruñeara joaten dira entrenatzera. «Ondo jokatzuz gero, kostata, baina irabazteko aukera izango genuke», azaldu dute bi gazteek. ◀

IGOR ODRIEZOLA ► ZESTA PUNTA JOKALARIA

«Etorritakoan lasai egon nahi dut»

la egunero entrenatzen du anoetarrak

Igor Odriezola anoetarra 9 urterekin hasi zen zesta puntan jokatzeko, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Halere, 18 urte ingururekin ekin zion txapelketetan «serio» jokatzeari. Orain, 24 urterekin, hainbat garaipen lortuak ditu jada; garrantzitsuenen artean dago duela lau urte Iruñean jokatu zuen Munduko Pilota Txapelketa bigarren postua. Duela bi urte profesionaletan debutatzeko aukera izan zuen Odriezolak. «Behin profesionaletan debutatuta ez da ohikoa izaten Munduko Txapelketara joatea, baina niri aukera eskaini didate eta ilusio handiz hartu dut». Oraindik ez daki zein izango duen bikote txapelketa handian. Entrenamendu gogorak egin behar izan ditu, ia egunero entrenatzen baitu Markinan,



HITZA

Gernikan edo Mutrikun. Zortzi herrialde inguruk jokatu dute bere modalitatean eta gogorrenak Kuba, Mexiko eta Frantzia direla azaldu du. «Mexikotik etorritakoan lasai egoteko aprobetxatu nahi dut, nire buruari denbora eskainiz». ◀

GIZARTEA ▶

'1.200 kilometrotan lokartzen dira amesgaiztoak...'

Tangerretik Tolosaraino autobus baten azpian etorri ziren bi gazte marokoarren istorioa da '1.200 kilometro' dokumentala; ostiralean estreinatuko dute, Leidorren

LEIRE MONTES

Goiza da Tangerren. Egunsentiaren lehen argiek agerian utzi dute, berriz ere, prest direla hiltzeko amets truke. Agur, ama! Agian gaur izanen da eguna.

Eta bai, 1.200 kilometro kantutak dioen bezala, hura izan zen, 2005eko abenduaren 12a. Jawad eta Youssef, 14 eta 18 urteko bi gazte marokoar beraien familia eta lurraldea utzi eta amets bila abiatu ziren egun hartan. 1.200 kilometro egin zituzten autobus baten azpian: 18 ordu zintzilik, mugitu gabe, Tangerretik Tolosaraino, zero gradu inguruko tenperaturarekin, Iberiar penintsula guztia zeharkatuz.

Marokon oporretan izan zen Tolosako talde batek egin zuen bidaia autobus horretan. Tren geltokira iristean irten ziren bi gazteak autobus azpitik. 40 bidaiariak ezin zuten sinetsi ikusitakoa. Eta une horretatik aurrera zerbait aldatu zen Iñigo Asensioren, Isitxo Larrañagaren eta beste hainbat lagun bizi-tan. Aldaketa, sentimendu eta bizipen horien guztien isla eta Jawaden eta Youssefen istorioa da, hain zuzen ere, Asensiok, Larrañagak eta Iñaki Elolak egindako dokumentala: *1.200 kilometro*. Ostiralean, hilak 22, estreinatuko dute Leidorren, 20:30ean.

«Istorio hau kontatu beharra zagok», esan nion Iñigori. Iñakirengana joatekoa nintzen, eta gertatutakoarekin zerbait egin behar zela esan nion. Segituan esan zidan baietz. Hirurak bildu eta arratsalde horretan bertan hasi ginen grabatzen», azaldu du Larrañagak. Antonio Martin ordiziarrak ere parte hartu du grabaketan. Gidoirik gabe hasi ziren, istorioak berak gidatuta. Eta pixkanaka-pixkanaka egin dute 1.200 kilometroko bidaia.

Inauterietan Marokora joatea erabaki zuten, bi gazteren familiek hitz egiteko eta materiala biltzeko. «Lana hara eta hona doa etengabe, Tolosatik Marokora eta beste aldera. Bi ildo ditu: Marokon guk bizi izandakoa eta horrek utzi digun arrastoa batetik, eta haien istorioa bestetik», dio Asensiok.

Bizirik naiz, ama! Herrialde



Dokumentalaren egileak; ezker-eskuin: Isitxo Larrañaga, Iñaki Elola eta Iñigo Asensio. L. MONTES

FITXA TEKNIKOA ▶

Izenburua. *1.200 kilometro*.
Zuzendaritza. Iñigo Asensio eta Iñaki Elola.
Produktzioa. Isitxo Larrañaga.
Errealizazioa. Iñaki Elola.
Gidoia. Iñigo Asensio.
Soinu teknikaria. Jon Ander Larrañaga.
Dokumentalaren kantua.
 ▶ Letra eta musika: Iñigo Asensio.
 ▶ Ahotsa: Jone Otxoa-Aizpurua.
 ▶ Planoa: Xabi Zubeldia.
 ▶ Txeloa: Jokin Ugartemendia.

berrian! Herri honetan ez du inork hitz egiten gure hizkuntza, baina ulertzen dugu elkar. Arazorik handiena hizkuntza izan zen harremanak sortzerakoan, «baina horrelako egoera batean dena ulertzen da». Familiaren esker oneko hitzak aipatzen dituzte etengabe dokumentalaren egileek: «Bat egin da daude, eta oso abegitsuak izan ziren gurekin». Hunkitu egin zituen tolosarrak Jawaden amaren hitzek: «Hemen zegoen nire zera esaten nion: 'Nola joango zara? Hilik gerta zaitezke!'. Baina hari berdin zitzaien. 'Hil behar badut ere Espainiara iritsi nahi dut', esaten zuten».

Senideekin bizitakoarekin batera, tentsioa oroitzen dute gehien Marokora egindako bidaiatik. «Polizia etengabe gurgandik gertu, hango erregimenaren askatasunik eza izuga-



Iraupena. 45 minutu.
Estreinaldia. Hilaren 22an,

ostirala, 20:30ean, Leidorren. Sarrera doan.

rria da, jendearekin ere kontuz ibili beharra... Horrela zaila zen lan egitea. Oso lan aberasgarria izan zen, baina tentsio handikoa. Kontrastez beteriko bidaia», dio Elolak.

«Haiengan sinistu genuen»

Baina dokumentala ez zen lan bakarra. Tolosan ere Youssefi eta Jawadi laguntzen jarraitu nahi zuten, eta hainbat ate jo zituzten horretarako. «Jende asko eta askori eskertu behar diogu hilabete hauetan eman diguten laguntza guztia». Azkenean, Goizaldi Fundazioaren bidez etxebizitza, eta Peñascal fundazioaren aroztogi ikasketak egiteko aukera lortu zituzten haientzat. Egun hala jarraitzen dute eta, gainera, arratsaldetan Helduen Heziketa Iraunkorraren (HHI) hasi dira, gaztelania ikasten.

«Haiengan sinistu genuen; horregatik egin dugu egin dugun guztia. Eta haiek dena eman dute. Hor dago integrazioaren gakoa, beraien gogoa, jarreraren, ilusioan», dio Asensiok. Hona etortzerakoan bi gazteek argi zuten saiatu egin nahi zutela. Hala esan zion Youssefek amari etxera deitzeko aukera izan zuenean: «Jainkoari eskerrak ondo gaude. Kanean egotea espero nuen, jendea gaizki portatuko zela; baina zorionez hemen nago. Bizimodua atera eta lan egiteko etorri gara hona. Paperak lortu, lan egin edo behar dena».

Hala, haiei omenaldia izan nahi du *1.200 kilometro* dokumentalak. «Beraiek izatea protagonista eta Tolosak bertako herritar bezala ikustea. Horixe nahi dugu. Haiek ere horretan saiatu direlako», azaldu du Larrañagak. Horregatik, Tolosan

YOUSSEF ETA JAWAD
 ETORKINAK

«Kanean egotea espero genuen, jendea gaizki portatuko zela; hemen gaude, zorionez. Lana egiteko etorri gara»

JAWADEN AMA
 SENITARTEKOA

«'Hilik gerta zaitezke!', esaten nion. Hari berdin zitzaien: 'Hil behar badut ere, Espainiara iritsi nahi dut'»

IÑIGO ASENSIO
 DOKUMENTALAREN EGILEA

«Haiengan sinistu genuen. Eta dena eman dute. Integrazioaren gakoa hori da, beraien gogoa, jarrera, ilusioa»

ISITXO LARRAÑAGA
 DOKUMENTALAREN EGILEA

«Beraiek protagonista izatea eta Tolosak bertakotzat hartzea nahi dugu. Haiek ere saiatu direlako»

IÑAKI ELOLA
 DOKUMENTALAREN EGILEA

«Egoera gogorra da, ezin da ukatu. Baina istorio hau, zorionez, ez da besteak bezalakoa, eta kontatu behar da»

bertain estreinatzea berezia da egileentzat, «ezagutzen dituzten artean egongo direlako».

Objetibotasuna mantentzea zaila egin zaien arren, morboan ez erortzen eta dramatis-moa kentzen saiatu dira. «Oreka mantentzen saiatu gara. Estetika aldetik, esaterako, ez genuen txirotasuna erakutsi nahi, eta herriaren edertasunean jarri dugu indarra. Berez egoera gogorra da, hori ezin da ukatu. Baina istorio hau, zorionez, ez da besteak bezalakoa. Ondo atera da. Eta horregatik ere kontatu beharra dago», azpimarratu du Asensiok.

Zerbait aldatu da, bai, Larrañagaren, Asensioren eta Elolaren bizitzetan. «Lehen horrelakoak entzun egiten genituen. Orain gertutik ukitu gaitu. Eta arrastoa utzi digu. Bide erreze-na hartu beharrean, arazoari heldu diogu. Denok merezi dugulako aukeraren bat».

1.200 kilometrotan lokartzen dira amesgaiztoak...

TOLOSA ▶

Salmenta
arruntak
izan dira
egun berezian

Aurtengo lehenengo
pentsamentuak eta
maiatza tipulak izan
ziren berrikuntza

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna, nahiz eta jende asko izan Tolosako kaleetan, lasaia eta salmenta eskasekoa izan zen. Dirudie-nez, azokan ikusten den ohi-ko jendea beste kontu batzuetan izan zen atzokoan eta hori salmentan zertxobait nabaritu zen.

Hala ere, eskaintza izugarria izan zen, eta azkeneko orduetan mugimendua izan zuten postuetan. Berritasunak ere ikusi ziren. Berdura plazan, apaingarrizko landareen postuetan aurtengo lehenengo pensamentuak ikusi ahal izan ziren euro batean salduak eta saltzaileek esandakoaren arabera, datorren asterako ziklamanak aurkeztuko dituzte. Baratzera-ko landareen postuetan, aurtengo lehenengo maiatza tipulak izan ziren.

Triangulo plazan, eskarola, azalorea eta errezil sagarra ikusi ahal izan ziren nobedade bezala.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Bertako produktua		
Onttoa	20,00	-
Ziza	20,00	-
Tolosako babarruna	8,00	12,00



ASTEASU: Guztiz eraberritua. Hormigoizkoa. Primerakoa. 35.500.000 pzta.
TOLOSA: 3 logela. Eraberritako. Hormigoizkoa. 31.000.000 pzta.
TOLOSA: Zumalakarregi. 3 logela, 2 bainugela 100 m2. Erabat berritua.
VILLABONA: 2 logela. Kalitatezko materialak. Berogailua eta igogailua. Bikaina. 44.000.000 pzta.
VILLABONA: 75 m2 erabilgarriak. Txukuna. Altzariz hornitua. Hormigoizkoa. 36.000.000 pzta.
VILLABONA: 2 logela. Erdi eraberritua. 35.000.000 pzta.
VILLABONA: Eraikuntza berriko apartamentua, bikaina.
ZIZURKIL: Ertzezko etxe itsatsia. Lursailarekin. Aparta.
ZIZURKIL: 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. Terraza ederra. Igogailua. 41.500.000 pzta.

Errota 2 - Villabona
olatzinmo@euskalnet.net
943 243 118 - 635 706 728

ZIZURKIL ▶ POLITIKA

«EHNA erabiliaz bizi»

Josetxo Otegi eta Joakin Arregi, EHNA poltsikoan dutela iritsi dira Zizurkilera



Ezkerrean, Josetxo Otegi eta Joakin Arregi, ongi etorri gisa dantzarien eskutik agurra jasotzen, ohol-tza gainean. MADDI SOROA

MADDI SOROA

Josetxo Otegi eta Joakin Arregi etxean dira jada, Zizurkilan. Ez dira esku hutsik etorri, ordea, izan ere, EHNA ekarri dute poltsikoan. *Nazio bat garelako, EHNA egin eta erabili* kanpainaren barnean kokatu da iheslari zizurkildarren etorrera. Era berean, 200 lagunetik gora bildu zelarik zizurkilgo plazan, iheslari ongi etorri beroa egiteaz gain, EHNA egin eta erabiltzeko konprometua hartuz.

Arratsaldeko seiretan ekin zitzaion *Nazio bat garelako EHNA erabiliaz bizi* lelopean, herenegun ospaturiko jaialdiari. Orduantxe zabaldu zituen ateak, Zizurkilgo Iriarte kultur etxeak, EHNA tramitatzeko bulego bilakatu zelarik. Gutxienez, 20 egin ziren ordu betean. Ondoren, herri kirolak burutu zituzten herritarrek, giro alaiean, ESAITen eskutik, «Euskal Herria nazioa dela» aldarrikapena indartzeko.

Herri kirolen ostein ekin zitzaion ekitaldi nagusiari adar

hotsaren oihartzuna eta txalapartaren doinu gozoarekin batera. Aurkezle lanetan arituz Jon Mirandak Tolosaldean 3.300 lagun baino gehiagok EHNA egin dutela gogoratu ondoren Mikel Arrastoak hartu zuen hitza. Jaialdi hurreraturikoak eskertzeaz bat, EHNA erabiltzeko deia egin zuen, «erosketak egiterakoan, banketxean, zergak ordaintzerakoan, udaletxean, kalean, lantokian... zergatik erabili behar dugu inposatzen diguten plastikoko puska bat?». Izan ere, «Euskal Herria zerbait bada, herritarrez osaturiko nazio bat dela», gogorarazi zuen. Xume bezain goxo txistu eta danbolin hotsa aditu zen hurrunean ondoren, dantzariak ziren Josetxo Otegi eta Joakin Arregiren bueltan plazara hurreratzen.

Zizurkilera buelta, etxera

Txistu eta danbolinaren melodian iritsi ziren Josetxo Otegi eta Joakin Arregi zizurkilgo plazara, etxera. Bertan, 200 herritar baino gehiago zituzten zain txalo zaparradaz agur beroa eskaintzeko gogoz.

EHNArekin bizitzeko konprometuz beren sorterrira ekarritako Otegi eta Arregik, 23 eta 28 urte, hurrenez hurren, pasa dituzte etxetik kanpo. Otegi Ipar Euskal Herrian izan da



Otegi eta Arregi oroit makila eta lore sorta jaso ondorenean. M.S

errefuxiatuz. Gau eskoletako irakasle eta udalekuekako su-kaldari lanean aritu da. Joakin Arregik, berriz, ez du bizitoki bakarra aukeratu; Ipar Euskal Herriatik Venezuelara, Caracasera egin zuen salto eta azken bi urteak, Hendaian igaro ditu.

Hunkituz hartu zuten hitza biek ohol-tza gainean. Herritarrei zuzendurik, EHNArekin bizitzeko konpromisoa berretsi eta borrokara lotzeko deia egin zuen Otegi. Arregik, berriz, habanera doinu-lau bertso kantatu zituen.

Taberna · Jatetxea
alokatzen da
Alegian
943 65 28 16
629 91 19 36

KULTURA ►

Umeltasuna ekitaldien beroak uxatu

Euskal Herriko III. Graffiti Lehiaketako irabazlea Graffmaniatiks taldea da

JAIONE ASTIBIA

Eguraldi umela atera zen atzokoan ere Tolosan, inork gonbidatu gabekoa, eta egunerako prestatutako ekitaldietan eragin zuen gutxi-asko; baina, festarako gogoak berotu zuen giroa eta han eta hemen prestatutako ikuskizunetara jendea erruz joan zen.

Egunari ez eze, herriko ormei kolorea jarri zietenak Euskal Herriko III. Graffiti Lehiaketako finaleko parte-hartzaileak izan ziren; 10 artista-talde; hizkiz eta irudiz osatutako konposaketa koloretsuak —gama berekoak edo kontrastez betetakoak— eta irudimentsuak egiten aritu ziren ia egun osoan; 1.200 bat esprai bote erabili zituzten eta «kalitate handiko lanak» egin zituzten, Topaguneko antolatzaileen hitzetan.

Herrikoekin batera ateratzekoak ziren Nafarroako beste

III. EUSKAL HERRIKO GRAFFITI LEHIAKETA ►

SARIAK

Teknika egokiena. *Jarri hegoak irudimenari*, Garrosa eta Romero (Gasteiz).

Kolore erabilpen egokiena. *Musika begiratu, entzun Graffiti*, Arregi (Gasteiz).

Freskotasuna eta originaltasuna. *Aurpegia*, Izarra eta Sebas (Gasteiz).
«Kalitatea» Saria. *Natura*, Graffmaniatiks-eko Lopez eta Zelada (Gasteiz).

lau herritako erraldioen onpartsek ez zuten kalejira egiterik izan, baina present egon ziren; eskopetariak ere bai.

Bestelako ikuskizunak arrakastatsuak izan ziren: Oskorri eta Kukubiltxo, *Tolosa Kantuan*... Gaur gehiago.



Euskal Herriko III. Graffiti Finala. 33 lehiakidek aurkeztu zituzten graffiti-proposamenak; horietatik 10 hoberenak margotu zituzten herriko hormak atzo. Ikusgarriak, koloretsuak, irudimentsuak, dotoreak. J. A.



Erraldoiak. Berdura plazako arkupean egon ziren, ttikien ikusmina asetuz. J. A.



Berri Txarrak. Herenegun Trianguloa jendez lepo ageri zen, euriari aurre eginez. Urbizu, kontzertuko une batean. M. SOROA



Kepa Junkera. *Hiri*, bere azken diska aurkeztu zuen musikariak, herenegun, Leidorren —irudian une bat—. Eskuineko txalapartaria Jon Garmendia ibartarra da. I. TERRADILLOS



Oskorri eta Kukubiltxo. Leidor bete haur eta gurasoren aurrean, *Doktor Do Re Mi eta benedizebra* ikuskizuna eskaini zuten. JAIONE ASTIBIA



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

► hilberriak ► urteurrenak ► eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldekohitza.nfo

PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE
guztien artean HITZAren motxila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira